

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2011ko ekainaren 16an egindako tailerraren akta

Gaurko tailerra berazia izan da. Joan den maiatzaren 22an izan ziren udal hauteskundeen ondoren, **ongi etorria** eman nahi izan diogu Legazpiko Udalaren korporazio berriari.

Batzar aretoa Foroko kideei eta zinegotzi eta alkate berriei harrera egokia egiteko prestatu dugu. Argazkiak zintzilikatu ditugu, baita aktak eta prentsako artikulak ere; horietan azkeneko legealdian Foroak egin dituen 36 bileren berri eman da. Bileretan, gutxi gorabehera, 25 pertsonak hartu izan dute parte. Guztira, 1.017 parte-hartze.



Eta guztion parte hartzeari esker, Legazpiko Agenda 21eko Foroak bizia hartu du eta legazpiarren topaleku bihurtu da.

Guztioi, etortzeagatik eta posible egiteagatik, eskerrik asko!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zeintzuk?

Askok eta askok erantzun diote gure gonbitari. Eta guztira, **29 legazpiarrek** hartu dute tailerlean parte.

Izen eta abizenekin, hauek izan gara:

Rafael Gómez (Buskabaso) • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Joxan Auzmendi (Ingurugela Legazpi) • Floren Gutiérrez • Isabel Vallejo (Olazabal institutua) • Axun Alkorta (Iratzarri) • Arantxa Ibarreta (Iratzarri) • Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) • Mailo Pinillos (Ilinti merkatarien elkarte) • Glori Martínez de Gereñu • Montse Vallejo • Junkal Fernández • Bittor Larraza (merkataria) • José Luis Cid • Manuel Fernández (Nagusilan) • Pedro Barroso (Nagusilan) • José Ramón Hernández (Nagusilan) • Ana Manzanos (Olazabal institutua) • Agurtzane Elustondo (Lenbur Fundazioa) • Iker Azurmendi (Goieki) • José Ignacio Gil (Gipuzkoako Urak) • Juan Carlos Agirre (Olazabal institutua) • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Aitor Uribeetxeberria (zinegotzia) • Amaia Solanas (zinegotzia) • Sagrario Etxabe (zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkateta) • Inma Hernández (Agenda 21eko udal teknikaria) • Iciar (Prometea, SC).

Eta horiei, beste konpromiso batzuk zituztelako etorri ezin dutela adierazi duten pertsonak gehitu behar dizkiegu.

Zertarako?

Udal korporazio berriari ongi etorria emateaz gain, gaurko saioak helburu argia izan du mahai gainean. Udal talde berriari **Legazpiko Agenda 21eko Foroa** aurkeztuko diogu eta zer den adieraziko diogu.

Eta horretarako, bilera batean bai eta bestean ere bai, Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartu duten legazpiarren laguntza jaso dugu.

Nola?

Oso modu errazean. Mahi baten gainean material desberdin eta ugari utzi dugu: plastilina, post-itak, errotulagailuak, kartoi meheak, guraizeak, aldizkariak, oihalak... pertsona bakoitzak, nahi duena eginez: marraztuz, margotuz, idatziz, modelatuz,.... gauzak azal ditzan:



- Norberaren esperientziatik abiatuta, zer da Legazpiko Agenda 21eko Foroa?
- Edo, alkate eta zinegotzi berrien kasuan, Legazpiko Agenda 21eko Foroa entzutean zer ulertzen dute?

Eta esan eta egin! Taldea lanean jarri da eta ondoko emaitzak jaso dira.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Taldearen emaitzak



Zure esperientziatik

Zer da Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroa? Nola azalduko zenuke? Zer azpimarratuko zenuke?

Eta hona hemen taldearen erantzuna.

Norberaren esperientziatik abiatuta, hauxe da Legazpiko Agenda 21eko Foroa...



Elkarrekin herria egiteko gunea, non 1+1 bi baino gehiago den.

Gune plural eta anitza helburu zehatzarekin: Legazpi hobetzea iraunkortasunaren ikuspuntutik.

Eraginkorra: Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartzea baliagarria da eta emaitzak daude.

Gune indartsua, moldeagarria, solidarioa, lanerako, eztabaidarako, ikasteko, elkarrekin egiteko...

- Iritzi bat, gehi bat, gehi bat,.... Legazpirako zerbait ederra eta aberatsa eraikitzeke direnak. Bat gehi bat batuketa da, eta bi baino gehiago da.
- Guztiona den zerbait eraikitzea eta hori banakako 25 iritziren batuketa baino aberatsagoa da. Elkarriketarekin eta bateratze-lanarekin ideiak eta proposamenak sortzen ditugu elkarrekin.
- Edozein adineko, ideologiako eta pentsatzeko modu desberdina duten pertsonen topalekua.... Legazpi hobetzeko biltzen direnak.
- Iritzi desberdineko pertsona desberdinen espazio anitza eta plurala.
- Espazio bat, non pentsatzeko modu desberdinak eta gauzak desberdin ikusteko moduak elkartzen diren.
- Legazpiarrak elkartzeko gune bat, handiagoa izan daitekeena. Gutxi batzuk gara eta gehiago izan gaitezke, Legazpiren etorkizuna eraiki nahi dutenak hurbilduz gero.
- Legazpiko gune parte-hartzaile garrantzitsuena.
- Elkartzeko gunea, anitza eta plurala eta emaitzak lortzen dituen. Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartzea baliagarria da.
- Emaitzak lortzen diren leku bat.
- Zerbait moldeagarria (horregatik erabili dut plastilina), non batik bat, ingurumen gaiak aztertzen diren (horregatik egin dut zuhaitza) eta sendoa eta indartsua dena (zuhaitza bezalaxe).
- Elkartasuna eta Legazpiren alde lan egitea.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpirako
garapen iraunkorra
eta parte hartzailea
da bilatzen
duguna.

- Iritzia emateko eta ikuspuntu desberdinak entzuteko gunea. Elkarrekin eraikitze gunea, non ikasi egiten den.
- Demokratikoa: bozkatu egiten dugu eta aztertuko diren gaiak aukeratzen ditugu; ondoren, lan egiten dugu emaitzak lortzeko. Horregatik, nire papertxoan erabili izan ditugun gometxak jarri ditut.
- Ezin iraunezko egoerari aurre egin eta lan eginez eta aztura iraunkorrak proposatuz joera hori aldatzen saiatzeko leku bat. Oinarri sendoa duen irudi bat egin dut, gure gizartean aztura horiek duten garrantzia adierazi nahi izan dudalako.
- Ingurumena eta gizartea kudeatzeko instrumentua. Legazpiko Agenda 21eko Foroan bestelako gaiak ere aztertu ditugulako: gizarte arlokoak, garapenekoak,....
- Herriko gaiak ongi ezagutzen ditugun 25 pertsonak elkartzen garen leku bat. Herritar garen aldetik gure iritziak inportanteak dira eta Udalak hartzen dituen erabakiak aberasten dituzte.
- Alkatetzaren aholkularitza gara.
- Informazio-gune bat baino gehiago.
- Denok osatzen dugun Legazpi hobetzeko gunea: elkar ikusten dugulako, elkar entzuten dugulako, loturak sortzen ditugulako eta legazpiarrago sentitzen garelako.
- Gustura gauden leku bat; hemen guztiok maite dugu Legazpi eta gure herriarentzako hoberena nahi dugu. Ideia hori adierazteko bihotz bat egin dut.

Legazpiko Agenda 21eko Foroa **entzuten dugunean,**
zer ulertzen dugu...



Herritarrak
elkartzeko leku
bat, bertan
Legazpiko gaiak
elkarrekin lantzeko.

- Iritzi desberdinak dauden eta Legazpiko gaiez hitz egiten den gune bat -hori adierazteko Berria hartu dut-. Gune horretan, gainera, euskarak protagonismo handiagoa izatea nahiko nuke.
- Iritzia emateko eta herriko gaiei buruz hitz egiteko Legazpiko bizilagunek parte hartzen duten topagune bat. Eta, horrezaz gain, jendea gustura dagoen leku bat.
- Legazpiko gai interesgarriei buruz iritziak eta ideiak batzen diren leku bat. Gai publikoei buruz eraikitze-lan kolektiboa dago.
- Espazio plural bat, non pertsona desberdinak eta anitzak parte hartzen duten; eta Inma Agenda 21eko teknikariaren eta laguntza-taldearen eginkizuna oso inportantea den.
- Leku parte-hartzaile bat non Legazpiko ingurumenari eta mugikortasunari lotutako gaiak lantzen diren. Baina orain hori baino gehiago dela ikusi dut.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Irudietan...



Erabili ditugun gainerako gometzak, post-itak, globoak eta eraikuntzak.

Eta hainbat ñabardurekin...

Bateratze-lanean, taldeak mahai gainean jarri ditu Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroaren gaineko hausnarketa interesgarri batzuk. Ñabardura garrantzitsuak dira, segidan azalduko ditugunak ahaztu ez ditugun.

Gehiago izan gintezken.

Aholkularitza taldea gara eta herriarentzat interesgarria den edozein gai landu eta eztabaidatu dezakegu. Guk gure iritzia emango dugu.

- Foroan gehiago izan gintezke eta gehiago egon gintezke. Gazteak falta zaizkigu eta Legazpiko enpresetako ordezkariak, lehen sarriago etortzen zirenak.
- Gai "zailak" aztertuko bagenituzke, zerbait lortuko al genuke? Adibidez, Pasaiako Agenda 21eko Foroa izango bagina eta kanpoko portua handitzeko proiektua aztertuko bagenu, kontuan hartuko al litzateke gure iritzia? Hausnarketa horren aurrean, taldeko beste kide batzuk hau erantzun dute: Legazpiko Agenda 21eko Foroa aholku-emailea badela ere eta "gure ekarpenak beti hartu izan direla kontuan". Jarri den adibidearen antzeko bat hemen emango balitz, guk, Foroaren izenean, gure iritzia eta taldearen hausnarketaren ondorioz ateratako emaitzak eskainiko genituzke.

Gainera, bateratze-lana egin dugunean Foroari interesatzen zaion gai bat sortu da: Legazpiko mugikortasun-planaren garapena. Azkeneko asteetan, Laubide auzora doan azken aldapatxoa 30 gune gisa egokitu da eta errepidean lerroak margotu dira tarte horretan bizikletek lehentasuna dutela adierazteko.

Aldaketa horren aurrean, eta zenbait esku-hartze eta ekarpenen ondoren, hauxe da emaitza:

- Hartu den konponbidea hurrengo bilera batean landu eta eztabaidatu daitekeen gaia da.
- Ondo egongo litzateke jende guztiari adieraztea eta erakustea zer esan nahi duen 30 gunea: oinezkoei, bizikletariei eta auto-gidariei.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Eta bukatzeko hainbat ohar

Eta ohi bezala, tailerra bukatu baino lehen **hainbat ohar**. Oraingoan Inmak ondoko gaiei buruzko informazioa eman digu:

- Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planaren eta Legazpiko klima-aldaketaren aurka egiteko planaren egoera.
- 2010ean Legazpiko iraunkortasun-adierazleen emaitza.
- Legazpiko Tokiko Agenda 21aren inguruan udako hilabeteetarako aurreikusitako jarduerak.

Hauek izan dira Inmak helarazi dizkigun mezu garrantzitsuenak:

- Legazpiko Agenda 21eko Ekintza-planaren **betetze-maila**, bere hirugarren urtean, % 38koa da. Datu ona da eta Euskadiko Autonomia Elkarteke udalerrietan dagoen batz bestekoa baino altuagoa da.
- Klima-aldaketaren aurka egiteko Planaren **betetze-maila**, hirugarren urtean, % 40koa da. Hori ere datu ona da.
- 2010ean Legazpiko **ingurumen- eta iraunkortasun-adierazleei** dagokienez:
 - Udalerrian murriztu egin da karbono dioxidoaren (CO₂) igorpena. Horren arrazoi nagusia jasaten ari garen krisialdian dago, Legazpiko udalerriko jarduera ekonomikoan eragina izan duelako eta horrek, era berean, energia-kontsumoaren murrizketa ekarri duelako.
 - Legazpiar bakoitzak, urtero, karbono dioxidoaren (CO₂) 5,1 tona igortzen du airera –industria aintzat hartu gabe-.
 - Oro har, Legazpiko iraunkortasun-adierazleek joera positiboa izan dute.



Etxean, egunero eta batz beste, biztanle bakoitzeko 103 litro ur gastatzen dugu. EAEren batz bestekoaren azpitik gaude (120).

Banaketa sarean egon daitezkeen ur-galerak jaitsi egin dira eta beste udalerrietan egon daitezkeenak baino gutxiago dira.

Gora egin du birziklatzen dugun hondakin-portzentajeak. Hori ondo dago baina ez dezagun ahaztu helburua hondakin gutxiago sortzea dela.

Gero eta gehiago erabiltzen dugu Urretxuko eskualdeko Garbigunea.

Bidegorrien sarea hobetzen doa: 4,7 kilometro ditu

Ingurumen-hezkuntzaren jarduerak antolatzeari dagokionez, Legazpin ia bikoiztu egiten dugu Euskadiko batz bestekoa.

Agenda 21eko herritarren Foroa urtean 9-10 aldiz elkartzen da.

Legazpiko 11 enpresek ingurumen-ziurtagiriak lortu dituzte. Horietako bat Udala da.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Legazpik urtetik urtera ur gutxiago kontsumitzen du. Hori berri ona da baina badakigu arrazoi nagusia krisialdian dagoela eta, ondorioz, enpresek ur gutxiago erabiltzen dutela.

Krisialdian, zabor gutxiago sortzen dugu: biztanleko eta eguneko 1,2 kg. Zer gertatuko da etorkizunean?

Energia berriztagarri gehiago ekoizten dugu baina oraindik ez da nahikoa.

- 2010ean, Legazpiko **ingurumen- eta iraunkortasun-irizpideei** dagokienez:



Gure kaleetan gero eta motordun ibilgailu gehiago dago: 5.430 ibilgailu 8.682 biztanleentzako.

Langabezia-tasak gora egin du 2008tik hona.

Krisialdiaren ondorioz, azkeneko bi urteotan pobrezia gora egin du.

Legazpiko biztanleen % 23,28k 65 urte baino gehiago ditu.

Azalpenak entzun ondoren, bi datu izan dira gure arreta bereganatu dutenak; batetik, Legazpin dagoen auto-kopurua oso altua dela eta urtetik urtera gora egiten duela kopuru horrek. Bestetik, biztanleen zahartze-maila. Berez, hori ez da datu txarra baina datu hori ezin da jaiotza-tasa handi batekin konpentsatu.

- Legazpiko Tokiko Agenda 21aren inguruan udako hilabeteetarako aurrekusi diren jardueren artean, **honakoak daude**:

- ekainaren 18an: **Olio ekologikoaren dastatzea**, Ilinti merkatarien elkartearen laguntzarekin.
- ekainaren 27tik irailera arte: **"Baietz txukun mantendu! Legazpi, más limpia, gracias a ti."** Udal langileekin batera herriko parkeak garbi mantentzeko egingo den kanpaina-lehiaketa. Kanpaina hau Legazpiko Agenda 21eko Foroak eman dituen ideietatik sortu da eta helburua udalerriko parkeak eta kaleak garbiago mantentzea da.
- ekainaren 1ean: **Kontsumo iraunkorraren eguna**, Emaús gizarte-fundazioarekin eta Legazpiko Garagunerekin batera. Hainbat gauza egongo dira: kale-animazioa, bidezko merkataritzako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera, antzerkia...
- irailaren 17an: **EKO BIRA kontsumo iraunkorraren feria**, Kutxarekin eta Emaús gizarte-fundazioarekin.
- irailaren 17an: **Ikastaroa, modu eraginkorrean gidatzen ikasteko.**
- irailaren 24an: **Erreka eguna.**

Jaso ondo egunak eta ongi pasa!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Bukatu egingo dugu: Azkeneko 10 hilabeteotako lanaren ondoren, oporrak hartuko ditugu! Urriaren hasiera arte beheratu egingo dugu pertsiana! Oporretatik bueltan, indarrez beterik, berriro altxatuko dugu.



Bitartean, ... uda ederra igaro dezazuela! Eta, batez ere, lasai-lasai ibili!

Ondo izan!!!